



Inge Mendioroz
andoaindarrak
zuzendu du "Ez gara
alferrik pasako"
dokumentala / 10-11

Extremadurako
sustraiekin konexioa
lortzeko "Castua"
antzezlan,
ostiral honetan / 12

Inbertsio
estrategikoetarako
ia 18 milioi euroko
mailegua eskatuko du
Andoaingo Udalak / 2



Bertan dira Sanmielak

Urnietako Udalak egitaraua aurkeztu eta jaiak errespetuz igarotzeko deia egin du / 4-8



ESKERRIK ASKO, UR-LAGUNAK!

Ura bizia da. Paregabek.
Ongietorria bedi bizia zaintzeko ekarpen oro, bada.
Administrazioek, enpresek, elkarteek, herritarrek... elkarrekin babosten
ditugu ibaiak, lakuak, hezeguneak, estuarioak, akuiferoak, kostaldeak...
Eskerrik asko, Ur-Lagunak!

UR-LAGUNAK.
URA DA. GU GARA.



KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

"Ongi etorri" plana, Egape ikastolako Bigarren Hezkuntzan

Aurten ere, Bigarren Hezkuntzan, "Ongi Etorri" Planarekin eman diogu hasiera ikasturte berriari. Urtez urte, ikasle eta irakasleen balorazio eta proposamenekin moldatu eta osatutako programa hau Ikastolan bertan sortu genuen duela hamar bat urte.

Ikasturte honetan ere, hiru egunetako plangintza prestatu dugu. Saio arruntak eten eta eguneko lehenengo saioetan ez-ohiko jarduerak landu ditugu ikasleekin.

"Ongi Etorri" planaren helburu nagusia ikastaldearen kohesioa eta elkarbizitza hobetzea da. Era berean, jarduera horiek talde-lana hobetzen, elkar hobeto ezagutzen edota taldearen rola eta funtzioak finkatzen laguntzen digute. Horretarako, Egape Ikastolan diseinututako plana jarraituz, aparteko jarduerak, bideo-emanaldiak edota hausnarketa saioak bideratu ditugu. Aipatu beharra daukagu, azken egunean, DBH 4. mailako ikasleak 1. mailako ikasleen irakasle bihurtu direla "berdinengandik ikasiz" jarduerak bideratuz. Bukatzeko ikasleek eta irakasleek egindako jarduerak baloratu eta datorren ikasturterako hobekuntzak proposatzen dituzte.

Aurreko urteetan bezalaxe, esperientzia oso aberasgarria izan da. Batetik, "Ongi Etorri" Planari esker, ikasleak eta beren arteko harremanak sakonago aztertzeak aukera izan dugu irakasleok eta jasotako informazioa oso baliagarria suertatu zaigu hemendik aurrera lan talde kooperatiboak osatzeko eta elkarbizitza positiboa bideratzeko. Bestetik ere, ikasleek aukera paregabea izan dute beren tutore eta irakasleak ez-ohiko jardunean ezagutzeko.



"Ongi Etorri" ekimena abian jarri dute Urnietako ikastolan. EGAPE IKASTOLA

Egitasmo estrategikoak bideratzeko adostasuna

Kiroldegiairen bigarren pista eta egungoaren eraberritzea, udal brigadaren pabilioi berria eta Udal Liburutegi berria eraikitzeke lanak aurrera doaz, eta egunotan urrats berria eman dute EH Bilduk eta EAJ-PNVk: mailegua eskatzeko adostasuna lortu dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Agintaldi honetan, EH Bilduren eta EAJ-PNVren ordezkariak behin baino gehiagotan agertu dira hedabideen aurrean. Eta guztietan alderdi biek estrategikotzat hartu dituzten gaietan. Bereziki, Udal aurrekontuak bideratzeko garaian. Agerraldi horietan hizpide izan dira udalaren etorkizuneko egitasmo potoak, hala nola, Zerbitzuen pabilioiaren eraikuntza edo Allurralde kiroldegiko bigarren pista eraikitzeke egitasmoa.

Astearte goizean agerraldia egin zuten bi alderdietako ordezkariak. Bertan ziren EH Bilduko Andoni Alvarez eta Marta Lasa eta EAJ-PNVko Imanol Goenaga eta Idoia Mikelez.

Aste honetan iragarritako akordioaren bitartez, 17,8 milioi euroko mailegua eskatuko dutela iragarri dute. Laburbilduz, hiru egitasmo zeheztu dituzte:

- Allurraldeko Kiroldegia: "Kirol elkarteek eta kirolariak hain beharrezkoa duten Kiroldegiko bigarren pista eta eraikina handitzeko".
- Udal brigadarentzako pabilioi berria, Illarramendin: "Langileen lan jarduna burutu ahal izateko".
- Udal Liburutegi berriaren proiektua bideratzeko.



EAJ-PNVko eta EH Bilduko ordezkariak, astearte goizean. AIURRI

Andoni Alvarez Lete (EH Bildu)

"Bi alderdiok adostasuna lortu genuen 2024ko eta 2025eko Udal aurrekontuak onartzeko eta el-karrizketa horietan egitasmo estrategikoak hizpide izan genituen. Gaur urratsa eman dugu norabide horretan: Kiroldegia eta Zerbitzuetako pabilioia egin ahal izateko Andoaingo Udalak 17,8 milioi euroko mailegua eskatuko du. Horrez gain, altxortegiko udal gerakinetik Udal Liburutegi berriaren erosketa eta beste egitasmo batzuetarako lehentasunak ezarri ditugu".

Imanol Goenaga Egibar (EAJ)

"Adostasunaren bidean, bi alderdien artean aurrekariak baziren. Orain, epe ertain eta luzera begirako inbertsio-lehentasunak adostu ditugu. Udalaren gaitasun ekonomikoa ezagututa, mailegua eskatu behar da finantzaketa bermatzea beharrezkoa baita. Ezin baita diruz horniturik gabeko egitasmoa aurrera atera. Maileguaren bidez kiroldegia eta zerbitzuen pabilioia martxan jarriko dira eta beste egitasmo gehiago bideratzeko konpromisoa hartu dugu".



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Truxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



Markel Carmonaren alde, erronka solidarioa

Urriaren 3an eta 4an, elkartasuna ardatz, egitarau zabala antolatu du Aurrera Markekin elkarteak, Carmonak pairatzen duen gaixotasun arraroari ikusgarritasuna emateko helburuz

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Ez du etenik Markel Carmona Lesacaren aldeko elkartasunak: ekitaldi solidarioa antolatu du Aurrera Markekin elkarteak urriaren 3an zein 4an, Hernaniko Atsegindegi plazan. Askotariko erronkak eta kultur-hitzorduek hartuko ditu asteburuak, etenik gabe 24 orduz jarraian.
Carmonak pairatzen duen gaixotasun ultraararoari ikusgarritasuna emateko helburuz antolatu du Aurrera Markekin elkarteak asteburua, sentsibilizazioa areagotzeko asmoz, baita mugikortasun murriztua duten pertsonen eskubideen



Markel Carmona Lesaca. AUERRERA MARKEKIN

alde borrokatzeko ere: “Egokitutako espazioak, oztoporik gabekoak, inklusiboak eta berdintasunezkoak nahi ditugu guztiontzat”.

Gaur egun, oraindik ere, urria da gaitzari aurre egiteko baliabide-sorta: mugikortasun-arazoekin jaio zen Carmona, baita kognitiboekin ere, GNAO1 genean izandako mutazio batek eraginda. Elkarateak adierazi duenez, EAEko kasu bakarra da Carmonarena, 20 pertsona daude Espainian egoera berdinean, eta, nazioartean, guztira, 180 pertsona.

Hori horrela, elkarateak azaldu du urriko lehen asteburuan bildutako dirua, beste zenbaitetan egin izan duen antzera, ikerketa sustatzeko eta familiei terapiako kostuak arintzeko erabiliko dela, gaixotasunari ikusgarritasuna emateko bidean.

BI EGUNEKO EGITARAU ANTOLATU DU AUERRERA MARKEKIN ELKARTEAK

ERRONKA SOLIDARIOA HERNANIN
Urriak 3 eta 4
18:00-06:00 Lehenengo erronka: Xabi (Forest Gamp) eta SpiderAbel vs Hernani Arraun elkarte. 12 ordu arraunean, gelditu gabe.
06:00-18:00 Bigarren erronka: Xabi (Forest Gamp) eta SpiderAbel vs Denontzat. Gimnasioa.

EGITARAU:
Urriak 3, ostirala
18:00 Erronkaren hasiera: Leire Retegi txistularia eta Xanti Nazabal dantzaria.
19:00 DJ Katxorro.
21:00 Ogitarteko solidarioa.
22:00 Kontzertua: Arrixku.
Urriak 4, larunbata
11:00 Musika eta buruhandiak: Hernaniko Banda eta Hernaniko Gazte Banda.
12:00 Herri kirol erronka Hernani vs Urnieta.
14:00 Ogitarteko solidarioa.
16:00 Gora Musika! ikuskizuna. Taupada, batukada eta kalejira.
17:00 Kontzertua: Mendeku.
18:00 Erronkaren bukaera.

Eskualdeko informazioa,
orain ere, Aiurriren
WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta

Jaietan murgiltzeko deia luzatu du Urnietako Udalak

Badatoz Urnietako Udalak antolatutako Sanmielak: bost eguneko egitaraua izango da, ostegun honetan hasita. Jarraian etorriko dira Arrosarioko Ama Birjinaren ohorezko jaiak eta Xoxokako festak, urriko lehen bi asteburuetan

Erredakzioa URNIETA

Txosnagunerik gabe eta herriko elkarte eta eragileen aspaldiko parte-hartze txikienarekin, hemen dira Sanmielak, ostegun honetan hasi eta astelehenera bitarte. Hala, egitaraua aurkeztu du, aste honetan, Urnietako Udalak. Jorge Segurado alkatea eta Ana Pozas Kultura zinegotziak eman zituzten hitzorduen nondik norakoen berri. Era berean, urriko lehen asteburuko Arrosarioko Ama Birjinaren ohorezko jaiak eta ondoren datozen Xoxokako festak aurkezteko ere baliatu zuten momentua.

Seguradok azaldu zuenez, "anitzta eta jende guztia erantzuteko jardueraz bete" da aurtengo egitaraua eta Udalak azken asteetan egindako "lan handia" nabarmendu zuen aurkezpenean, "ahalik eta programa zabalena, anitzena eta integratzaileena osatzeko". Hori horrela, "bereziki aurtun" ospakizun-egunetan parte hartzea erabaki duten elkarten lana azpimarratu zuen alkatea, baita Udaleko teknikariek egitaraua ixteko egindako ahalegina ere, "denbora errekorrean berregin behar izan baita".

Denda Berri elkarte eta tokiko ekoizleak

Pozasek eman zituen egitarauaren gaineko zertzeladak. Mende erdiko ibilbidea nabarmentzeko, Denda Berriren eskutik ailegatu da Sanmielen txupinazoa

herrira: "Elkartek 50 urte daramatza lanean gure adinekoen artean ongizatea, osasuna eta konpainia sustatuz". Hari horri tiraka, tokiko ekoizleak ere hartuko dituzte gogoan festetan, Sanmiel egunean, 0Km ekimeneko kideak omenduko baitituzte ordezkaritza politikokoek: Adarrazpi, Errekalde, Gurutzeta, Goiburu eta Urtzi Telleria. Bost urteko bidea bete berri du proiektuak eta, astero-astero, San Juan plazan hitzordua egin eta sasoko produktuak herritarren eskura jartzen dituzte.

Egun batez, haurrek ere protagonismo berezia hartu ohi dute Sanmieletan, Haurren Egunean, hain justu ere. Bada, aurtun hilaren 26an izango da hori eta Nora Aranburu eta Unax Altuna Alkate Txikiak gobernatuko dute herria, goizetik hasita, arratsaldera bitarte umeei zuzenduriko jarduerak sorta zabala izango den egunean. Bide beretik, aurtun, Udalak iragarri duenez, musika-iragarri izango dira barraketan, igandean, 17:00-19:00 bitartean, zarataren aurrean sentsibiltate handiagoa duten herritarrentzat.

Musika-eskaintza, bi tokitan

Azken hilabeteetan Txosna Batzordeak eta Urnietako Udalak izandako harreman gatazkatsua medio, ez da txosnagunerik izango jaietan. Horren aurrean, Etxeberriz plaza "gazteentzako

oholtza" antolatuko dela iragarri zuen Pozasek. Bestalde, urtero legez, musika-hitzorduek ere egongo dira San Juan plazan. Besteak beste, La Txama, Del Canto, Mirua, Da Igual, Oxabi Erromeria, DJ La Fulana eta Puro Relajo igoko dira oholtza gainera, aipatutako bi guneeetan.

Erasoen aurrean, arreta-gunea

"Eraso matxistei, lekuri ez" lelopean, informazio- eta arreta-gunea izango da aurtun jaietan. Bi egunez, hilaren 26an eta 27an, Idiazabal kaleko 13. zenbakian (KZgune ondoan) egongo da Puntu Morea, 23:00etatik 04:00etara.

Aldaketak, trafikoa

Aldaketak ekarriko dituzte Sanmielek herriko trafikoa. Esaterako, barraken ondorioz, itxita egongo da urriaren 1a bitartean Errekaldeko aparkalekua. Idiazabal kaleari dagokionez, irailak 26ko arratsaldetik irailak 28ra bitartean, itxita egongo da Itxaspe paretik Kandela pareraino. Bestalde, Etxeberrizko biribilguneetik San Juan plazara doan trafikoa Maximo Yurramendi kalera bideratuko da. Arantzubi aldetik, San Juan plazarako sarbidea ere itxita egongo da, San Juan 11 parean. Eta Geltoki kaltetik egin beharko da Azkorte kalerako sarrera, behetik gora.

Errepide-mozketen ondorioz, aldaketak izango dira autobus-zerbitzuan. Idiazabal kalea itxita



Jorge Segurado alkatea eta Ana Pozas kultura zinegotzia, agerraldian. AIURRI

dagoen bitartean, bi geltoki egongo dira martxan: Elkarten etxearen ondoko biribilgunean eta Langardako biribilgunean.

Jaiak, espazio seguru izateko deia

Txosnagunearen gaineko ordenantzak azken hilabeteetan ekarritako gorabeheei aipamena eginda, jaiak "elkartzeko, ospatzeko eta askatasunez gozatzeko gune segurua" izateko deia luzatu zuen Jorge Seguradok age-

rraldian: "Jaiak libreki ospa ditzaten, eta inork ez ditzan baldintzatu parte hartzeko erabaki individual edo kolektiboak. Ez dugu onartzen jai-giroa baldintzatu nahi duen presio-modurik, ezta garapen egokia oztopatu nahi duenik".

Programa, eskura, sakelakoan
Mugikorrerako aplikazioan zintzilikatu du Urnietako Udalak jaien egitaraua, herritarrek, uneoro, eskura izan dezaten.

"DENBORA ERREKORREAN BERREGIN BEHAR IZAN DA EGITARAUA"

JORGE SEGURADO, ALKATEA

"DENDA BERRIK 50 URTE DARAMATZA GURE ADINEKOEKIN LANEAN"

ANA POZAS, KULTURA ZINEGOTZIA



Urnietako
udala

IRAILAK 25-29 SANMIELAK

IRAILAK 25

OSTEGUNA

16:30 Futbol-billar jokoa 11-16 urtekoentzat, Zubitxo plazan.

18:00 "Nire lehenengo Jaiak" Udalak haur jaioberriei jaietako zapia jarriko die Plazido Muxikan.

18:00 Urnietako eta inguruko erraldoien eta buruhandiak Plazido Muxika plazatik, Bosko Anitz txarangarekin.

19:30 Mielaren jaitsiera. Udalak txupinazora zapiarekin eta alkandora zuriz zein galtza/gona urdinez jantzita hurbiltzeko deia luzatu die herrikideei. Txupinazoa Denda Berri elkartearen eskutik.

20:00 Zuttik elektrotxaranga.

23:00 La Txama, plazan.

IRAILAK 26

OSTIRALA

09:30 Diana: Txanbolin.

10:15 Alkate Txikien izendapena Udaletxean: Noa Aranburu Romero eta Unax Altuna Atxaga.

10:30-13:30 Bizijolas haur jolasak igerilekuko belardian.

12:30 Apar festa, Plazido Muxika plazan.

17:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira dultzaineroekin San Joan plazatik Idiazabal kalera eta buelta.

18:00 11-16 urtekoentzat Ginkana, Zubitxo plazan.

23:30 Del Canto, plazan.

23:30 Mirua, Etxeberri plazan.

01:30 DJ saioa, Idiazabal kalean.

IRAILAK 27

LARUNBATA

10:00 Diana: Txanbolin.

10:00 Kontzejupeko haurren esku pilota txapelketaren finalak.

11:30 8 urtetik gorakoentzat tailerrak eta eskulanak plazan. Bosko Anitz Aisialdi Taldeak antolatuta.

12:00 Koadrilen kalejira Pasai Txarangarekin San Joan plazatik.

14:30 Emakume koadrilaren bazkaria, Oianume jatetxean.

17:00 +55 kalejira, Pasai Txarangarekin, plazatik abaituta.



Sanmielak, artxiboko irudian. AIURRI

17:30 Urdanbor, Kiroldegitik abiatuta.

18:00 Revu DJ, Idiazabal kalean. Egur eta Kandelarekin elkarlanean, mojitoak eta bestelako edariak.

18:00 Agirren Taldea, Elkarteen Etxean, Denda Berri antolatuta.

23:30 Da igual, plazan.

23:30 Oxabi erromeria, Etxeberri plazan.

IRAILAK 28

IGANDEA

11:00 Kalejira, inguruko txistulariekin eta Mugarik gabeko kideekin batera.

11:40 Salestarrak Magale haur danborrada, Magale Ikastetxetik abiatuta.

12:00 Hamaiketako Elkarteen Etxean, Denda Berri antolatuta.

12:30 Elektrotxaranga, Elkarteen etxetik abiatuta eta Kandela tabernaraino.

17:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira, San Juan plazatik abiatuta.

18:00 Txokolate-jatea, Plazido Muxikan.

18:30 El Ganso kale antzerkia, Plazido Muxikan.

23:30 DJ La Fulana, plazan.

IRAILAK 29

ASTELEHENA SANMIEL EGUNA

09:30 Diana: Txanbolin.

10:00-14:00 Puzgarriak, Kiroldegiko eskubaloi pistan.

11:30 Meza Nagusia Mikel Goiaingeruaren elizan. Udal korporazioa, Udaletxetik elizara.

13:00 Bertako ekozleei udal omenaldia, udaletxeko batzaraldi aretoan.

14:00 Denda Berri elkarteak antolatutako nagusien bazkaria, Oianumen.

16:00-18:00 Puzgarriak, Kiroldegiko eskubaloi pistan.

17:00 Herri kirolak Egape Ikastolan. Aizkoran: Julen Gabirondo / Ander Altuna eta Nerea Arruti / Malen Barrenetxea. Harri jasotzen: Estefi Etxebeste eta Udane Ostolaza.

17:00 "DesOrekatua" magia ikuskizuna, Zubitxo plazan.

18:30 Puro Relajo, plazan.

20:30 Mielari agurra. Zezen suzkoak. Azken traka erretzea eta jaien amaiera.

Hitzordu gehiago, urriko lehen asteburuan
Urriko lehen asteburuan hitzordu gehiago izango da herrigunean eta, ospakizunari jarraipena emanez, Xoxoka ere jaietan murgilduko da. Urriko hitzorduen berri, datorren Aiurri astekarian.

HOTEL
HK10
HOTELA

943 33 73 57
info@hotelk10.com

GORA URNIETA!

GORA SANMIELAK!



Rosa Gonzalez eta Mikel Alberdi, Denda Berriko zuzendaritzako kideak elkarlearen banderarekin, Elkarleen Etxeko egoitzan. AIURRI

Aurtengo pregoilariak

Denda Berri Pentsiodunen eta Jubilatuen elkarteak dira aurtengo pregoilariak. Mende erdia bete du elkarteak ekintzak antolatzen eta herriko adinekoak mugiarazten, eta ondo merezita dauka aitortza hori

Xabier Lasa URNIETA

Angelita Ugalde, Tomas Hernandez, Marivi Rodriguez, Rosa Gonzalez eta Mikel Alberdik osatzen dute Denda Berri elkarlearen egungo zuzendaritza batzardea.

Elkarleaz eta pregoiaz hitz egiteko Mikel Alberdi eta Rosa Gonzalezekin hitzordua lotu zuen Aiurrik. Adierazi dutenez, pozik ez ezik eskertuta daude jai batzordeko kideek Denda Berri elkartearen izendatu dutela

ko pregoia egiteko. “Izan ere, bost hamarkadetan aurreko talde eragileek egin duten eta oraingoa ere egiten ari den ahalgin isilari aitormen publikoa egiten zaio horrela”, Mikel Alberdiren hitzetan.

Aiurriekin elkartu ziren egunean oraindik ez zeukaten erabakita zein izango den Udaltzeko balkoitik zabalduko duten mezua, baina burutan dauzkaten zenbait ideia aurreratu zituen Alberdik. “Eskerrak ematearen atala ez genuke ahaztu nahi, noski. Hortik aurrera, jaiak alaitsuak, sosegatuak eta bakeatsuak izatea deseatu genuke. Herriarri ere zabaldu -eta gogorazi- nahi genieke honako beste bi mezu, gutxienik: jubilatuek eta pentsiodunek ez dugula soilik tripa-kontuetan eta eskurtsioetan pentsatzen; jardun horietaz gain, badakigula herri-gintzan parte-hartzen eta badakigula gainerako elkarleekin elkarlanean aritzen; alegia, beti egon garela prest horretarako eta ez garela esku-gurutaturik egon. Bestalde, adinekoei zuzenean esango diegu atera daitezela kalera sozializatzen bakanrik nahiz bilobekin eta San Mieletan bezainbat urteko gainerako egunetan; horrek bizi-poza ematen baitigu”.

Jakitun dira udalaren eta txosna batzordearen artean sortu den giro mikatzaz. Atsekabea sortzen die egoerak, eta horregatik, “nork berea defenda eta aldarrika dezala, baina soseguz eta errespetuz pasa ditzagun festak” azpimarratzen dute.

Ehunka bazkideen elkarte dinamikoa

Ez da pagotxa zenbait urnietar biltzen dituen eta zenbat ekitaldi burutzen dituen Denda Berri elkarteak, urtero. “550etik gora bazkide mugitzen ditu elkarleak eta horiek dinamizatzen, elkarleko... eta azken batean, zahartzaro osasungarriagoa edukitze-ko ekitaldi desberdinak antola-

tzen saiatzen da”, esan du Rosa Gonzalezek.

Ez da berdina guzti horien inplikazio maila, Gonzalezek esanetan, “batzuei etxetik ateratzea kosta egiten zaie, gogorik ez daukatelako edo mugikortasun arazoak daukatelako. Beste batzuk, ordea, badaukate ohitura eta ematen dute izena antolatzen ditugun ikastaro eta irteeratarako”. Hain zuzen, ikastaroei dagokionez, zeintzuk diren gogorazi dizkigu Gonzalezek: “euskara eskolaren, memoria tailerren, josketaren, zumbaren, lerro-dantzen eta sebillan eskaintza egiten da gehienbat”. Bestalde, hamabostean behin, eskualdeko bikote ugari erakartzen duen dantzaldia ospatzen da Agirren musika taldearekin, Elkarleen Etxean.

Halaber, ez dira ahaztu behar ibilaldi ugari prestatzen dituzten urtean barrena (Zarautz-Getaria-Zarautz, Donostia-Trintxerpe, Lezo-San Juan...) eta baita ere sei bat egunetarako irteeraren bat edo beste (esate baterako, urrian, Galizara doaz).

Horrenbestez, egunerokotasunean, bazkide franko bildu ohi da Elkarleen Etxean kokatzen den Denda Berriren egoitzan, ekintza baterako edo besterako. Aparte, horiei gehitu behar zaie goizero edo arratsaldero egoitza topaleku gisa hartzen duten bazkideak, mahai-jokoetan aritzeko.

Antolakuntzari dagokionez, lanketa handia eskatzen duela aitortu dute Alberdik eta Gonzalezek. “Goizero eta arratsaldero egokitzen zaigu bulego lanak egitea, edo ekitaldi horiek burutzen diren tokitik gertu ibiltzea. Egunerokoa eta goiz-arratsaldekoa da ardura hori. Jendeak pentsa dezakeen baino



Sanmiel jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!



salestarrak
MAGALE · URNIETA



Kartetan aritzea da Denda Berri elkarteko erabiltzaileen zaletasunetako bat. AIURRI

Elkartek urtarrean egingo du urteko batzarra, eta jendea boluntario berriak zuzendari-tzarako aurkez daitez deialdia egin dute. “Jubilatu eta pen-siodunen elkarteek gizartean betetzen duten funtzioak ez du gaurkotasunik galdu, eta denok nahi genuke Denda Berri bestemende erdia egin dezan honetaz aurrera”.

Denda Berri izenaren jatorria
Urnietako Udaren Bertan bulegoa kokatzen den etxearen izena da. Iraganean, baserri txikia izan zen, eta bertan, taberna batez gain oinarritzko jakien saltokia izan zen (informazio gehiago, AMUATEGI, Teresa: “Urnietako etxe eta baserriak”. Urnieta, 1998). Urnietar askorentzat ohiko biltokia izan

ohi zen etxe hori. XX. mendean barrena, Juanito-enea taberna izan zen etxabea, eta goiko solairuetan, berriz, maizterrentzat bizilekua izan zen. Agustin Zabala jabea eta bere seme-alaba guztiak hil zirenean, Udalak erosi zuen etxea 2013ko urtarrean, Bertan izeneko Herriarren Arreta Bulegoa ireki zuen Udalak Denda Berri eraikinean.

Txosna Batzordeak bi hitzordu iragarri ditu

Ostegun arratsaldean, elkartasun-argazkia; ostiral arratsaldean, manifestazioa

Erredakzioa URNIETA

Orain hilabete pasatxo iragarrita, jakina da Txosna Batzordeak ekitaldiak antolatzeari uko egin diola. Hala eta guztiz ere, ospakizun girotik kanpo dauden bi hitzordu iragarri ditu batzordeak.

Irailak 25, osteguna

18:00 Argazki kolektiboa Plazido Muxika plazan.

Irailak 26, ostirala

18:30 Manifestazioa deitu dute, San Juan plazatik abiatuko dena.

Txosnen arautegia lantzeko prozedura berriari ekin diote

Astearteko Udal batzarraaldiko aztergaietakoa izan zen 2026ko txosnak erregulatzeko ordenantza berria

Erredakzioa URNIETA

Ordenantza berria egiteko ideiak eta ekarpenak jasotzeko prozedura administratiboa martxan jarri dute, behin osoko bilkuran aztergaiari bidea eman eta gero.

Urnietako Udalak zabalduko oharrean jasota dagoenez, proposamenak aurkezteko 30 egun izango dituzte eragileek: azaroaren 6an, beraz, amaituko da epea.

URNIETAKO UDALAK
JAI ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUE URNIETAR GUZTIEI

GOZA DEZAGUN ERRESPETUZ

URNIETA 2025
eko

Irailak 25-29

SAN
MIELAK



1978an hainbat kidek egindako irteera batean ateratako argazkia. DENDA BERRI

1975eko Sanmielak

Denda Berri taberna aspalditik izan zen Urnietako jubilatuz eta pentsiodunen topagune. Hantxe elkartzen ziren hamaiketakoak egiteko, arratsalderoko mahai-jokoetarako, meza osteko eta bazkal aurreko baxoerdia hartzeko...

Xabier Lasa ANDOAIN

1975ean, legez, 65 urterekin jubilatzen ziren urtetan lanean kotizatzen aritu zirenak. Era horretan, orain 50 urte atzera, ohiko bezeroetako batzuk erabaki zutenean antolatzea euren

kolektiboko intereseko ekimenak burutzeko asmoz, elkarte berriari Denda Berri izena jaretzea otu zitzairen. Hantxe bertan egin zituzten beren bilerak eta bertan hartu zituzten lehen erabakiak.

Nolanahi ere, modu formalean 1980/11/24an eratu zuten elkarte, eta handik gutxira, 1981/01/27an, EAEko elkartearen erregistroan sartu ahal izan zuten, estatutuak aurkeztu eta gero.

SANMIELAK, 1975EAN

Udalak, Santa Cruz elkarteak, Gurasoen elkarteak, Vegasa Klubak, Adarra Kirol Klubak eta Gorostidi Peñak elkarlanean antolatu zituzten Sanmielak.

Irailak 27an, larunbata

15:30 Ardi-txakurren txapelketa Xoxokan. Herriko artzaintzat.

Irailak 28, igandea

Baserritarraren eguna

Oharra: Trikitilari ospetsuek kaleak girotuko dituzte.

08:00 Jaien hasiera. Kanpai-errepika eta koheteen-jaurtiketa.

08:30 Kalejira herriko txistulari, buruhandi eta erraldoiekin.

09:00 Txirrindulari proba: "V. Vegasa Sari Nagusia". 2. mailako afizionatuak eta jubenilak.

11:30 Bertso saioa.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Vegasa Klubaren egoitzan.

16:00 Euskal Herriko soka-tira txapelketa, aizkolariak, lokotxa-biltzea.

22:00 Dantzaldia San Juan plazan.

Irailak 29, astelehena

08:30 Diana herriko txistulari, buruhandi eta erraldoiekin.

09:00-13:00 eta 16:00-19:00 Bolo eta toka txapelketak.

10:30 Meza nagusia.

11:30 Herriko txistulariak.

12:30 Herriko bi pilotari bikoteen arteko norgehiagoka.

18:00 Ordu txikiak bitarte, dantzaldia San Juan plazan.

22:30 Zezen-suzkoa.

Irailak 30, asteartea

Haurren eguna

09:00-13:00 eta 16:00-19:00 Bolo eta toka txapelketak.

09:00-13:00 Haur jolasak: eltze-haustea, lokotxa-biltzea, lasterketak...

10:00 Idazketa lehiaketa, euskaraz eta gaztelaniaz.

10:30-14:00 Bolo eta Toka txapelketak.

12:00 Xake txapelketa, 6 urtetik 14 urte bitartekoentzat.

13:00 Erraldoien eta buruhandien konpartsaren kalejira.

16:00 Marrazketa lehiaketa.

17:00 Bigantxak, "etorkizuneko herriko toreroek erakustaldia egin dezaten".

18:30 Torry y Pipo y el Señor Manolo pailazoaren emanaldia.

20:00 Asto lasterketa.

22:00 Dantzaldia, ezkondu eta ezkongabeentzat.

Urriak 4, larunbata

16:30 Plater-tiraketa Xoxokan.

17:00 Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.

21:30 Euskal Jaialdia: Mikel La-boa, Gorka Knorr, Josu Goya, Xabier Lete, Yon Bergaretxe eta Gau Talde Berriekin.



**SANMIEL JAI ZORIONTSUAK IGARO
BERDINTASUNEAN, ASKE ETA EUSKALDUN**





"Mugitu Andoain!", larunbat honetan

Denboraldiaren aurkezpena



Larramendi Torneoa irabazita ekingo diote ligari

Erredakzioa ANDOAIN



Inge Mendioroz Ibañez eta Idoia Garces Aldazabal Bastero Kulturguneko auditorioan, aurreko astean. TTAP

“Tradizioa gurpil bat da eta belaunaldi bakoitzak bere alea jarri du”

INGE MENDIOROZ IBAÑEZ, IDOIA GARCES ALDAZABAL DOKUMENTALGILEAK

“Ez gara alferrik pasako” dokumentalaren egileak dira biak: Mendioroz andoaindarra zuzendari lanetan aritu da eta Garces lasarte-oriatarrena da, berriz, gidoia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Itzalean eroso bizi ziren, protagonistik urrun. Berriki, he-dabideen arreta piztu dute bi dokumentalgileek. Biek ere antzekotasuna dute Lourdes Iriondorekin: urnietarrak fokoen azpian dizdira egiten zuen, bai-

na argiak itzaltzean, euskararen transmisioan lanean tinko eutsi zion.

Inge Mendioroz Ibañez eta Idoia Garces Aldazabal: elkarrizketa Bastero Kulturgunean egiten ari gara, hain zuzen, Inge, zure haurtzaroko auzoan.

Inge Mendioroz. Bai, bai. Nere amona hemen bizi zen, Bastero izena zuen etxean. Ama eta izebak han jaio ziren. Hemendik metro gutxira genuen denda eta gu haren atzealdean bizi ginen. Urte asko atzera, Plaza Morea deitzen diotena, aparkalekua

zen, harriz jositakoa eta hantxe ibiltzen ginen jolasean.

Bizitzan aurrera egin ahala, lanak ekarri zaitu hona. “Ez gara alferrik pasako” dokumentalaren zuzendari zara eta, zure alboan, Idoia gidoilaria dago. Donostiako Zinemaldian egin zen estreinaldia, Zinemira zikloan. Nolako izan da honaino iristeko prozesua?

I.M. Oso luzea eta katramilatsua izan da. Finantziarioa lortu ahal aurrerapenak egin genituen. Bi urtez edo, halaxe aritu ginen. Muntaiak txikia eginda eta bestelako lan batzuk egin behar zirela ikusita, Maluta Filmseko Ritxi Lizartzarengana jo genuen. Egindakoa ikusi ahal izan zuen eta lana osatzeko zegoela iruditu zitzaion. Beste bultzada bat behar zuen irudirik apenas gendelako. Orduko telebisten irudiak eta filmazioak faltan genituen eta zailtasun handiena horiek lortzea izan da. Audioak bagenituen, senideen eta lagunaren argazki-bildumak, baina filmaziorik ez. **Lourdes Iriondoren ahotsarekin abiatzen da ikus-entzunezkoa. Oso hasiera indartsua du eta, besteak beste, kantuaren amaiera aldera abesten du “nabilelako nago hain**

zikin”. Kantuak ideia asko irudikatzen ditu eta, akaso, neronek jarrerara nabarmenduko nuke. Hark erakutsi zuen jarrerara.

Idoia Garces. Horixe bera. Izugarri gustatuko litzaidake, egun, Lourdes ezagutzea eta nik uste dut jarrerara hori mantenduko lukeela. Emakume izatea garai hartan, hegoaldean –ezberdina baitzen Iparraldeko bizitza–, egoskorra, indartsua, bere ideiei tinko eusten ziona dela. Jendeak zer pentsatzen zuenari, akaso, bost axola zitzaiona, eta bere ideiekin aurrera egiten zuena.

Azken batean, Lourdes Iriondo ikonoa da, baina akaso adin bat dugunontzat eta helduagoentzat. Lana martxan jartzeko arrazoietakoa transmisioa izan zen? Non du sorburua dokumentalak?

I.M. Bazelako pertsona ahaztua guretzat, eta hari buruz irudikatzen zutenarekin ez ginen batere ados. Ikerketa-lana egin ostean, ikusi genuen sekulako pertsonaia zegoela atzean, lan handia egindakoa.

I.G. Kontua da beti era batera gogorarazten digutela: gona motzarekin, ile luzeduna, liraina eta oso xaloa. Eta garai batean hala ikustea... Bai, apaina zen. Garai hartan, hala irudikatu zitekeen, eta gaurdaino iritsi da “Euskal Herriko nobiya” garai hartako adiera hura. Emakumeak urte batzuk egin zituen, ilea moztu zuen eta beste beste guztiak bezala zahartu zen. Gure errebindikazioa da: zergatik haren aro txiki bat baino ez digute erakusten? Emakume horrek ere izan zuen bere prozesua. Ez dok Amairu amaitzean egin zuen kantagintzaren aldeko lan hori. Eta beste lan asko egin zuen ezkutatu digutena, edo isilarazi dituztenak. Transmisioan katebegi izugarri bat, badaki kate bat dela eta katebegi horretan umeak eta gazteak ere oinarri zirela. Horren alde egin zuen Urnietan bertan. Bihotzeko gai-xotasun larria zuen eta berak ere erabakitzen du oholztatik jaistea eta, badirudi, oholztaren dizdira hori galduta jendeak ahaztu egiten duela... Baina lan izugarria egin du, denok ikutzen

“DOKUMENTALEAN AGERTZEN DIRENAK ERREFERENTE DIRA, KATEBEGIAK: EZ DIRA ALFERRIK PASA”



Bastero Kulturguneko goiko solairuan zinema-emanaldi analogikoak proiektatzeko tresneria dago. TTAP

gaituen lan bat eta hori aldarrikatu nahi genuen.

Urrietak pisu handia du dokumentalean, ezinbestean. Koro Berasategi ilobak pisu handia du, esaterako. "Ahal duenak egin dezala ahal duena", zioen Lourdesek. Eta, egiten dena, "benetan" egitea erantsi zuen. Jarreraz gain, pasioa nabarmendu behar da.

I.M. Lourdesek zioen ez dela garrantzitsua zer egiten den, baizik eta nola egiten den. Oholtzako jarduna utzi zuen eta beste lan batzuetan jarri zen: ipuinak idazten, umeentzat diskoak egiten, antzezlanak idazten. Horrek guztiak garrantzi bera dauka haren ibilbidean.

I.G. Bere asmoen deklarazio bat da. Gaixo dago, ebakuntza egingo diote, zuzenekoak egiteari utziko dio, baina bere intentzioa ez da desagertzea mundutik. Bizi duen gizartean bizitzen eta parte hartzen jarraituko du, baina beste aukera bat eginda.

"LAN KOLEKTIBOA EGIN ZEN, ORAIN ERE EGITEN ARI GARA ETA AURRERA EGITEKO EGIN BEHARKO DA"

Dokumentalean, ertz horiek, Mariasun Landaren eta Koro Berasategiren lekukotzatan ageri dira, ondoen.

I.M. Lourdesen liburuak izan ditugu ikastolan, bere diskoak izan ditugu etxean eta ondorengo belaunaldiak haren antzezlanak bidez ikusi dituzte ikastetxeetan. Transmisioaren ikuspegitik, hiru belaunaldi ukitzen dituela esango nuke.

Era berean, testuinguru politikoa giltzarri da. Mugaz bestalde, baziren eskubideak eta bestelakoak. Hemen, aldiz, euskal kultura eta euskara birrinduta zeuden. Belaunaldi batek hartu zuen ardura pertsonala eta kolektiboa. Bete-betean murgildu zen xede horretan dokumentalaren protagonista.

I.G. Badakigu Hegoaldean zein egoeratan zeuden gure kultura eta gure hizkuntza. Ez dakigu zein izar lerrokatu ziren hor... Lourdesen irudia, 1964an, erreferentziazkoa izan zen emanaldiz emanaldi ibili zelako. Haren beharra zutela sentitu zuen mugimendu hura martxan jartzeko. Lourdesi buruzkoa da dokumentala baina, era berean, garai hartako lan kolektibo hura errebindikatu nahi dugu. Jende askok egin zuen lan eta Lour-

des izan zen erreferentea, beste askorekin batera.

Oro har, denborarekin mitifikaziorako joera nagusi da. Dokumentalean asmatu duzue mitoa bigarren planoan uzten eta pertsonari lehen-tasuna ematen.

I.M. Hori zen asmoa: egin zuen lan guztia aipatzea eta nolako pertsona zen erakustea.

I.G. Bestela, traizio egingo genioke Lourdesi berari. Oholtza gainean bazen nor, baina oholtzatik jaistean uste dugu bera kontziente zela lan gogorra egiteke zegoela. Esango nuke bizerik balego ez lukeela halako omenaldirik edo dokumentalik ametituko.

Ari gara kantagintzan eta emakumezkoen artean aritu zen bidegileaz. Zuen gonbidatuen artean Jule Goikoetxea ageri da. Emakumezkoen "ezabaketa sistemikoa" hizpide du, eta zientzian ere erreferenteak behar ditugula aldarrikatzen du. Ikustekoa izango zen, garai hartan, Lourdes hainbeste gizonen artean. Zer izango ote zen aipatu gabe utzi zuena, entzundakoak entzunda eta bizitakoak bizita.

I.M. Lourdesek berak pasarte bat aipatu izan du. Emanaldi batean, hastear zela, Lazkano bertsolaria entzuten du atzetik

"hau nahi eta ezin bat izango da" esanez. Bada, kantatzeari ekin eta ikusleagoak negar egiten zuen, hunkituta. Auskalo antzeko zenbat komentario entzun zituen!

I.G. Eta, ziurrenik, garai hartako emakumearen papera bete behar zuen, isilik egotearena. Baina ez dut uste isilik geratuko zenik.

"Ez gara alferrik pasako" izenburu du dokumentalak. Eta, bistakoa da, ez ziren alferrik pasa. Kolektiboa du hizpide eta arrasto sakona utzi zuten, nahiz eta akaso ez den behar bezalako transmisioa egin.

I.M. Emakume talde horri buruz ari gara. Belaunaldi osoa ekarri dugu gogora.

I.G. Jule Goikoetxeak erreferenteen premia nabarmentzen du eta nik esango nuke erreferenteak izan ditugula. Ez ditugu ezkutatatu behar, argitara ekartzen baditugu ikusiko dugu lehen ere borroak izan zirela. Gure amak, gure aurreko belaunaldia eta eurek ere izango zituzten erreferenteak. Uste dut erreferenteak behar ditugula baina jakin behar dugu lehen ere izan zirela erreferenteak. Dokumentalean agertzen direnak erreferente dira, katebegiak, ez direnak alferrik pasa.

Lan kolektibo bat izan zen baina arte jardueretan badira arrastoa uzten dutenak. Amagoia Mujika Berriako zuzendariak bete-betean asmatzen du bere hausnarketan: baziren kantariak garai hartan, baina Lourdesek zirrara berezia sortzen zuen.

I.G. Kontua da berak erabakitzen duela erretiratzea. Gizartea zorretan da harekin eta bere erabakia izan zen erretiratu izana, baina bada nor. Eragin handia izan zuen, baita Ez Dok Amairu egitasmoan. Xabier Letek aitortzen du Iriondok berak hots egin ziola bileretan parte hartzeko. Lourdesek, beraz, bultzada eman zien beste askori.

Lourdes alde batean utzi eta zuetaz hitz egingo dugu, Inge eta Idoia. Aspaldiko irudiak, animazio-lana, argazkiak, bozak... Muntai-lanak burukomin handia eman dizu horrek guztiak, Inge?

I.M. Ogibidez ikus-entzunezkoen muntatzailea naiz eta zuzendaria izatea abentura izan da niretzat. Kamikazeren pare murgildu ginen. Buelta asko eman ditu lanak, eta material berria eskuratu genuenean, bat-batean, istorioa aldatu zen.

I.G. Brodatua dagoela esango nuke. Egin, desegin... jostunaren edo, akaso, armiarma-sarearen irudia erabili beharko genuke. Muntai-lana, joskintza lana, txapela kentzekoa dela iruditzen zait.

Idoia, zu letretan ibilitakoa zara, liburuak idatzi dituzu. Dokumental baterako idaztea beste langintza bat da, oso ezberdina. Nolakoa izan da gidoia idaztearen prozesua?

I.G. Liburuak idaztea, niretzat, lan indibidual bat da eta gidoia idaztea talde-lana izan da. Gozamena izan zen. Bagenuen ideia, zer adierazi nahi genuen bagenekien. Guk ikuspuntua oso argi genuen eta hori lortzeko bion arteko lana izan da, nagusiki. **Hierarkiarik ez dagoela dirudi, zuei bioi entzunda.**

I.G. Nik Ingeri aitortzen diot gidaritza-lana, harena izan baitzen dokumentala egiteko ideia. **Dokumentala itzuliz, lekukotza apartak bildu dituzue. Ez dut aipatu gabe utzi nahi Maite Idirin eta ahizpatasuna, Estitxu Robles eta haren irudi-estetika indartsua... Eta kantuan ageri dira, gainera, Nahia Robles edota Idoia Bedaxagar. Gustuko pasartea da Baionan grabatu zenuten zuzenekoak.**

I.M. Oso pozik gaude zuzeneko emanaldi horiekin. Lanketa egiten ari ginela Baionako emanaldiaren berri izan genuen. Emanaldi hura bete-betean sar zitekeen gure lanean.

Kantariak, zuzenekoak, transmisioa... Hori guztia aipatu eta gero, Mursegorekin biribiltzen da filma-zioa. Ez dugu gehiegi aurretatuko baina, esango nuke, zuengandik hasita, oparia izan dela Mursegoren ekarpena.

I.M. Oparia izan zen, erabat. Kantagintza egungo joeretara ekarri du, estilo ugari nahastuz. Harentzat ere sorpresa atsegina izan zen dokumentalean agertzen diren hainbat berri izatea.

I.G. Mariasun Landak aipatzen du belaunaldi hartan, hein batean, artistek tradizioa berreskuratu eta biziberritu zutela. Bada, Mursegok ere hori egin du: Lourdesen kanta berera ekarri eta beste era batera zabaltu ditu. Horrela ere Lourdes ezagutaraztea lortzen da. Ez gara gelditzen folklore tipikoan gotortzen. Tradizioa gupril bat da eta belaunaldi bakoitzak bere alea jarri du. Lan kolektiboa egin zen, orain ere egiten ari gara eta egin beharko da aurrera egiteko. Bestela, gaizki gabiltza.

"Emakume ahaztu horietatik gatoz"

SARA JIMENEZ AKTOREA

Extremadurako historia eta kultura uztartzen dituen "Castua" antzezlaneko protagonista da. Asteburu honetan izango da Bastero Kulturgunean

Xabier Lasa ANDOAIN

XX. mendeko Extremadura historia eta tradizioa aberatsetan barrena bidaiatzera gonbidatzen duen "Castua" antzezlanaren taularatuko du Almor Movimiento konpainiak, irailaren 26an, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Sarrera doan izango da, baina gonbidapena hartu behar da.

Sara Jimenez aktoreak XX. mendeko Extremadura hartzen du jomugan. Herrialde horren oroimen kolektiboa berreskuratzen nahi du, emoziozko interpretazio konprometitu eta sinboliko baten bidez. Antzerki emanaldia Badajozeko Diputazioak, Andoaingo Udalak eta Hogar Extremeño elkarteak elkarlanean sustatu dute.

"Castua" terminoa oso ezaguna egiten zaigu Andoainean. Orain mende erdi, lurralde haietako migrazioa batzuek "Hogar Extremeño," "El Miajon de los Castuos" elkarteak sortu zuten.

Kastuak beren lurrak lantzen zituzten laborariak bezala aipatzen zituen Luis Chamizo idazleak. Antzezlanak, heziketa, lana eta bizitza duinaren bilaketa ditu ardatz; eta badakigu 1936ko Gerra Zibilak nola zapuztu zuen hori guztia.

Obrari "Kastua" deituek lurrraren lanaren aldarrikapenarekin du zerikusia. Besteak bezain duina da ogibide hori, baina oso iraindua eta gutxietsia izan da beti. Horregatik, bizibide hori aldarrikatu nahi da, gure arbaso gehien-gehienak horretan jardun izan dutelako, eta gainera, borroka egin zutelako lurrraren defentsan.

Bestalde, obrako pertsonaia gehienak emakumeak dira, eta ondo dago gogoraztea haiek ere lurra landu zutela, familiaren ardura hartu zutela, maistrak izan zirela, milizietan aritu zirela borrokan eta erreproso frankista gogorra ere jasan zutela. Horregatik guztiagatik,



Sara Jimenez aktorea, "Castua" antzezlanean. ALMOR MOVIMIENTO

femeninoa da antzezlanaren izenburua.

Eta zergatia are gehiago finitzeko, esango nuke hiru emakume garena emanaldien biran goazenak. Hirurok gara ikusizunaren sustatzaile nagusiak; geuk egiten ditugu zeregin guztiak (ekoizlea, aktorea, zuzendaria, antzerkigilea, soinu-tekni...), gizonenak izan direnak neurri handi batean. Eta hemen gaude gu; historian zigortutako herri bateko kide izateaz gain, emakumeak ere bagara!

Obraren deskribapen laburrak dio "Extremadurako historiaren funtsezko pasarteak" gutxitan kontatzen dutenen ahotik (emakumeak, ahaztuak eta erresistenteak) entzuten direla.

Halaxe da. Denok dakigu Extremadurako konkistatzaileen historia, baina nork ezagutzen

du nekazarien matxinada? Nork hitz egin du Extremadurako emigrantei buruz? Historia ez da soilik garrantzitsua "lorpen handiak" egiteagatik; behean dauden historia kontatu behar da, inoiz kontatu ez den historia. "Castua" antzezlanak eragin didan eraldaketarik handiena historiari borrokarako indarra hartzea izan da. Nekazariak baldintza duinen alde borrokatu zuten, emigratzaileak baldintza duinen alde, eta nik gauza bera egin nahi dut.

"EXTREMADURAKO SUSTRAIEKIN KONEXIOA LORTZEKO OBRA LAGUNGARRIA DA"

Egia esan, Extremadurako herria herri otzana ez dela eza-gutzeak eta ulertzeak, "Extremadurako izatearekin" dudaren harreman guztia eraldatu didate. Istorio hau sortu dugun artista guztiak hortik gatoz, emakume ahaztu horietatik, erresistente horietatik... eta bada garaia existitu zirela eta existitzen garena esateko.

Extremadurako galtzaileen, baztertuen... Duintasunaren aldarrikapen irmoa du zuena, hortaz.

Bai, eta ahal dela, "gure lurraldean profetak" izanik, eta aintzat hartuak izan gaitezen emigratu beharrik gabe.

Badirudi bere horretan jarraitzen duela Extremadurako belaunaldiak migrazioa kondenatzen dituzten politika ofizialak. Esate baterako, azken aldian trenbide-sarearekin daukazuen istiluek, injustizia historiko hori bistaratu dute.

Jakina irauten duela, lagun asko kanpoan ditugu, horietako batzuk Frantziako edo Suitzako lurra lantzen..., han jorrala Extremaduran baino askoz hobeto ordaintzen delako; eta ez hitz egiteagatik zientzietan edo teknologian aritzen direnen lanetorkizunaz... Belaunaldi kide asko dira alde egiten dutenak, eta tristura ikaragarria sorrazten du errealtate horrek.

Horrexegatik, antzezlanak erakundeak interpelatzeko ditu, eta aldi berean, herritarrei ere luzatzen die mezua: ez daitezela goiko boteretsuen txotxongilo bilakatu. Errealtatea nolakoa den ikusita, ezkor jartzen naiz batzuetan. Konparazio batera, Extremadura eta bere baliabide naturalak botere erraldoien esku geratzen ari dira, energia berriztagarrien eta bestelako energien egitasmoen zabalkundearekin, Galizan eta beste leku batzuetan gertatzen ari den bezala. Kobrea, beruna eta zinka erauzi nahi dituzten mehatz erraldoien eremu bilakatzen ari da Extremadura, eta osasun publikoa, nekazaritza, abeltzaintza... defendatzeko matxinada bat egin nahiko bagenu -nekazariak 1936an egin zuten bezala-, uste dut ez genukeela jakingo norengana jo. **Euskal Herria, eta zehazki, Andoain, Extremaduratik etorritako migrazioa askoren harrera-lekua izan da joan den mendeko azken hamarkadetan. Ez dakit faktore horrek Basteroren funtzioa bideratzerakoan beste gehigarri bat suposatzen duen zuretzat.**

Badakit Extremadurarekin loturarik ez duen jendea etorriko dela, baina ni bereziki hunkitzen nauena antzezlanaren migratu zuten extremadurarrekin erakutsi ahal izatea da. Extremaduratik kanpo lehenbiziko emanaldia izango da, eta horrek ere hunkigarriagoa egiten du antzezsaioa.

Nire aitona Isidro Barakaldora migratu zuen, eta, obran aipatzen den bezala, "herrimina" zuelako itzuli zen jaioterrira. Gure arbasoek hartu dituzten erabaki guztiei esker gaude gu hemen eta bizirik, eta, gainera, haiei esker berreskuratzen eta konta ditzakegu beren historiak, ahazturan ez daitezen galdu. Ni Extremaduran jaio nintzen, baina Euskal Herrian jaio nintekeen; pentsa Andoainean, Euskal Herrian antzezteak niretzat eduki dezakeen esanahi berezia.

Nola erantzun du publikoak antzeztu duzun tokietan?

Publikoa neurri gabe hunkitzen da, eta obrak lortzen du bere helburua, alde horretatik. Lotura sakona sortzen da antzeztokian, eta igartzen dut adinekoei nolako gozamenaren eragiten dien bizi izan duten historia antzeztele batek kontatzeak.

Pertsona askok uste dute hobe dela iragana ahaztea eta aurrera egitea, baina dagoeneko makina bat adineko emakume eta gizon -gerraosteko haurrak- ikusi ditugu negarrez emanaldiaren ondoren eta eskerrak ematen euren istorioa kontatzeagatik. Bestalde, gazteen artean, hainbeste denboraz kendu diguten gure lurraldeko izatearen harrotasuna piztea lortzen du. Pozik nago alde horretatik, izan ere proiektu honi ekin nionetik nire ilusioa baita gazteak ahalduntzea beren familiaren historiaren bidez, niri gertatu zitzaizdan bezala. Ahalduntze hori lagungarri gerta dakieke kontzientzia hartzeko eta jaio diren lekuan beren espazioa bilatzeko. Ez da erraza xedea, baina gazteok eraikitzen dugu historia, eta hobe da iragana ezagutzea etorkizunera begiratzeko gero.

Laburbilduz, uste dut obra lagungarria dela Extremadurako jendeak bere jaiolekuarekin eta sustraiekin konexioa lortu dezan. Extremadurakoak ez diren ikusleak, berriz, nahiko harrituta geratu ohi dira normalean, ezagutzen ez duten Extremadurako historiarekin egiten baitute topo.

Rikardo Arregi eta Gabriel Aresti

Gauza jakina da 1960ko hamarkadak, Frankismoaren azken urteen hasieran, pizkunde modukoa ekarri zuela euskal kulturaren esparrura eta, bereziki, euskalgintzara

Euskara Zerbitzua ANDOAIN

Horren adibide nabarmen aipatu ohi da lehenengo Ikastolen sorrera eta apurka-apurkako zabalkundea Euskal Herri osoan barrena. Pizkunde horretan, baina, izan zen landutako alor gehiago: kazetaritza –paperezkoa eta irratigintza–, euskalduntze-alfabetatzea, kantagintza, literatura... euskara batuaren hil ala biziko auzia...

Pizkunde hark hainbat protagonista izan zuen, horietako bi aitzindari gisa erruz nabarmendu ziren: Gabriel Aresti eta Rikardo Arregi. Bilbotarra, lehena, andoaindarra, bigarrena, Euskaltzaindian ezagutu zuten

elkar, Rikardo erakundera iritsi berritan euskalduntze-alfabetatzearen ekinaldiari buruzko proposamena egin eta hura aitzinarazteko. Ordurako Arestik ordu asko emanda zuen akademiaren lanetan eta izen handiko literatur sortzailea genuen, bere olerkigintza sozial eta kritikoa aski ezaguna ordu-rako.

Beraien artean 9 urteko aldea izan arren intelektualki adinkide ziruditen. Hasiera-hasieratik oso ondo konpondu ziren elkarrekin, elkarri begirune eta estimu handia zioten. Izaeraz eta aiurriz bazuten antzik, berritzaile eta ekintzaileak ziren,

aldarrikatzaile, euskal kultura, euskal gizartea, euskara bera parametro modernoetara ekarri nahi zituzten. Euskararen gerrieroa deitu zion Gabriel Arestik Rikardori bere heriotzaren orduan eskainitako olerki batean. Hala deitu zion Usurbilen, Udarregi bertsolariaren omenaldian Rikardok egindako hitzaldi sutsuagatik. Hantxe zen ere Gabriel Aresti eta Andoaingo gazte hark harrituta utzi zuen bere indarragatik, bere nortasun handia eta ekiteko sendotasunagatik.

Euskal kulturgintza berritzaile suspertzearen lan horietan beste batzuekin batera –Saizar-

bitoria, Sarasola...– buru-belarri ziharduela, Lur argitaletxea sortzeko proposamena egin zuten eta egitasmoa abiarazteko Gabriel Arestiren Harri eta herri argitaratzea erabaki. Arestik Harri eta herri obraren erreproduzio eskubideak musutruk eman zizkien arren, Gabrieli eskuzabaltasun hura nolabait ordaindu nahi izan zioten Eibarko enpresari batek oparituriko Seat 850 ibilgailu baten bidez. 1969ko uztailaren 10ean bilera zuten Bilbon, Euskaltzaindian, eta bertan elkartzeoak ziren, besteak beste, Aresti eta Arregi. Bilera hori baliatu zuten Rikardo Arregik eta Ramon Saizarbitoria 850 hartu eta Bilbora eramateko. Bidean, ordea, istripua izan zuten Mendaron eta, jakina denez, bertan hil zen Rikardo...

Rikardo Arregiren hileta elizkizunetik astebetara, Andoaingo San Martin elizan omenaldi ospakizun berezia egin zen Rikardoren alde. Bertan, Gabriel Arestik Rikardo Arregiren heriotzagatik "Auharen sentimendua" izenburuko olerkiaren eskaintza egin zion Rikardo



Gabriel Aresti. WIKIPEDIA

Arregiri. Omenaldi haren audioa gorderek dago gaur egun: Ariane Kamio Andoaingo kazetariaren erreportajearen entzungai dago, Naiz.eus webgunean.

Audioa entzungai



Kandido Uranga Inazio Tolosa

**Urriak 3, ostirala
19:30, Bastero. 3€**

Poesia herriarentzat eginda dagoela aldarrikatzen zuen Gabriel Arestik. Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek bi piezarekin osatu duten antzerki proposamen honetan, Arestiren hitzek bizirik dirautela gogorarazi nahi digute.



ANDOAINGO UDALA



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

JAIK

URNIETA Sanmielak

Lehen txanpa, asteburu honetan.
Jaien egitarau osoa, 5. orrialdean.
Irailak 25-29.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Castua"

Extremaduraren eta bere herritarren historia ikuspegi kritikotik jorratzen duen antzezlan.
Irailak 26, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Aresti, gogoan

"Gabriel Arestirekin" ikuskizuna, Kandido Uranga eta Inazio Tolosaren eskutik.
Urriak 3, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

EKIMENAK

ANDOAIN Mugitu Andoain!

Jarduera fisikoa sustatzeko egun osoko egitaraua antolatu du Udalak.
Irailak 27, larunbata. Goizez.



Belabi kalean dago ludoteka berria. AIURRI

ANDOAIN Udal Ludoteka berria, martxan

Urriaren 14an zabalduko dute Ludoteka berria. Izena emateko garaia da.
Izen-ematea: Irailak 30-urriak 10. E-posta: ludoteka@andoain.eus.

IKASTAROAK

ANDOAIN Hainbat ikastaro

2025-2026ko kultur ikastaroetan izena emateko epea irailaren 15etik zabalik dago. Egur lanketa, pintura eta eskulanak, aukeran. Asteko, bi ordu eta erdiko ikastaroak izango


dira eta interesatuak Basteron edo Andoain.eus gunean eman behar du izena.

Azken eguna: Irailak 25.

ANDOAIN Jabekuntza Eskola


Udazkeneko eskaintza, prest.
Info: jabekuntza.andoain.eus.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Maspalomas
Irailak 27, larunbata. 19:30.
Irailak 28, igandea. 19:30.
Irailak 29., asti. 17:00, 19:30.

Campamento garra de oso
Irailak 27, larunbata. 17:00.



SINOPSISIA

Maspalomas

Zuzendaria: Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi. **Aktoreak:** Joxe Ramon Soroiz, Nagore Aranburu, Kandido Uranga. **Herrialdea:** EH (2025). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 115 m.



Zinemalditik, Basterora

Bikotekidearekin hautsi ondoren, 76 urteko Vicentek gustuko duen bizimodua darama Maspalomasen: egunak eguzkitan etzanda, festan eta plazera bilatzen igarotzen ditu. Ustekabeko istripu batek Donostiara itzultzera eta duela urte asko abandonatu zuen alabarekin berriz elkartzea behartuko du. Vicente egoitza batean bizi beharko da, eta han armairura itzularazi eta jada konponduta zeukala uste zuen bere buruaren zati bat ezkutatzea bultzatuko dute. Ingurune berri honetan, Vicentek bere buruari galdetu beharko dio ea oraindik garaiz ote dagoen besteekin... eta bere buruarekin adiskidetzera iristeko.

ZOKKETA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

AiurriKIDeen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu

Parte hartzeko modua:

Idatzi **"ARESTI"**, zure izen-abizenak eta bidali:

* **WhatsApp:** 619 163 537

* **E-posta:** diseinua@aiurri.eus

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitzez AiurriKIDE

AIURRI KIDE

IKUSKIZUNA

GABRIEL ARESTIREKIN

Kandido Uranga
Inazio Tolosa

Urriak 3, ostirala
19:30. Bastero, Andoain

Poesia herriarentzat eginda dagoela aldarrikatzen zuen Gabriel Arestik.

Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek bi piezarekin osatu duten antzerki proposamen honetan, Arestiren hitzek bizirik dirautela gogorarazi nahi digute.

Ekitaldia antolatu du Larramendi Bazkunak

Aurrera darrai Andoaingo euskara elkarteak "Andoaingo Euskera, Bihotzetik kalera" ekinaldiarekin aurrera darrai eta hitzordu berria iragarri du: datorren urriaren 2an, Kale Nagusia eta Zumea kalea batzen dituen Kaimuturrean, 18:30ean hasita

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Egoitza berria Andoaingo erdigunean, garaiko beharrei egokituta, euskaltzaleen bilgune izango dena. Horixe da "Andoaingo Euskera, Bihotzetik kalera" izena duen ekinaldiaren xedea eta helburu hori lortzeko lanean ari dira Bazkuneko zuzendaritza-taldea eta makina bat bazkide.

Berriki, Ane Jalon lehendakariak adierazi duenez, "Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren helburu nagusia Andoainen euskarari leku duin bat eskaintzea da, zentzu guztietan. Andoaingo euskaldun, euskaltzale eta euskara maite duten herri-tarrei espazio eta aukera berri bat eskaini nahi diegu eta herri-ratze prozesu horretan, herrian leku estrategiko bat bilatzen ari gara".

Egitasmo estrategikoa bideratzearekin batera, hainbat ekitaldi antolatzen ari dira. Tartean, datorren urriaren 2koa.



Zuzenean ariko dira Aidurü musika taldeko kideak. AIURRI

Urriaren 2an, Kaimuturrean
Arratsaldean hasita, jateko eta edateko aukera izango da Zumea eta Kale Nagusia elkartzen diren gunean. Eta, gainera, Aidurü musika taldeak giro-tuko du arratsaldea. Iñaki Gozalo "Wentxi" (bateria), Esti Mujikak (teklatura), Jon Huizik (baxua), Larraitx Arriolak (ahotsa) eta

Axi Aranburuk (gitarra) osatzen dute Aidurü. Udan, Kale Nagusian, Mikel Laboa, Anari, Ines Osinaga, Gorka Urbizu, Su ta Gar, Itoiz, M-ak eta beste zenbaiten bertsioak jo zituzten.

Larramendi Bazkunaren egitasmoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da, beraz, datorren urriaren 2an.



Etxeberrieta kalea. AIURRI

Etxeberrieta kaleko etxebizitza zaharrak botako dituzte laster

Andoaingo Etxeberrieta kaleko 5 eta 13 zenbakien arteko etxebizitzak hondamendi-egoeran daude, eta epe motzean eraitsiko dituzte. Datozen egunotan izan daitekeela dirudi. Hilabeteak dira inguru hartan hesitura horia ipinita dagoela, bertan egotea eta bertatik igarotzea arriskutsua dela ohartarazteko.

Astearte goizean Ertzaintzaren hainbat ibilgailu bertaratu zen inguru hartara. Antza denez, aurreko egunetan, eraikin haie-tako etxebizitza bat okupatu zuten eta, etxeko jabeak salaketa jarri ostean, astearte goizean hustu zuten.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Xabat eta Galder
Zorionak bikote!!! Segi orain bezain jator. Muxuak familiaren partetik



ANDOAIN
Zorionak Aratz !
Irailaren 27an Aratzek 8 urte betekoen ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez.

AIURRI.EUS

"Ibaitik itsasora"

Palestinaren aldeko zeharkaldia amaitu zen Hendaian. Kontakizuna atal berezia jasota dago, Aiurri.eus webgunean.

Babilonia baserria eraitsi dute

Hamarkada luzetan, sagardotegi eta taberna izan zen Urnietako Oztaran auzoko eraikina

Erredakzioa URNIETA
Behera bota zuten, astearte arratsaldean, hondeamakinek. Babilonia baserria Oztaran auzoan kokatuta zegoen, herriko memoria historikoan garrantzi handiko geldialdia zen, gaurdaino zutik iraun duen eraikin zaharrenetakoa baita. Sagardotegi eta taberna izan zen, urte luzez. Memoriaren ibilbidean ere, azpimarra jarri behar da Babilonian, 1989. urtean Batallón Vasco Español talde ultraeskuindarrak Hendaian eraildako Joxe Kamio Larrañaga urnietarra bertan jaio baitzen.

"Urnietako etxe eta baserriak"
Teresa Amuategi herriko emagin eta historia-ikerlariaren "Urnietako etxe eta baserriak" (Urnietako Udala, 1998) liburuan, egileak aipatzen duenez, zamalzainak, gurdizainak, morroiak, mandozainak egon ohi ziren bertan, eta ondoan zegoen Posta baserrian ostatu hartzen zuten bidaiariak. Amuategiren hitzetan, jardun horretan du izenaren sorburua: "Hizkuntza dialekto desberdinekin, baten batek, Babelgo Dorrea gogoratuz, taberna honi Babilonia izena" jarri izana.



Babilonia baserria, berriki ateratako argazkian. AIURRI



ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

EGIGUN DENON ARTEAN!

Ekitaldiaren aurkezpena
herritar guztiei zabalik

NON: Kaimuturrean
(espigoia)

NOIZ: Urriaren 2an,
ostegunarekin

ORDUA: 18:30

AIDURÜ
taldearen
doinuekin
gozatuta!

Zatoz
gurekin
eztarria
freskatzera!

